

GRADU AMAIERAKO LANA

**ERRUSIERATIK EUSKARARAKO
ITZULPEN ZUZENAREN HASTAPENAK:**

**ITZULPEN-ESTILOA MAKSIM GORKIREN
AMA ELEBERRIAN**

Ainhoa Iturzaeta Goicoechea

Tutorea: Iker Sancho Insausti

Euskal Herriko Unibertsitatea
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua
Eslaviar Filologia (Ikasketa Klasikoak)
Ikasturtea: 2017-2018

ABSTRACT

Errusieratik zuzenean euskaratutako lehen eleberria aztertzea izan du helburu lan honek. Horretarako, euskal itzultzaileak itzulpen-prozesuan erabili dituen baliabideen azterketa orokor bat gauzatu dugu, itzultzailearen balizko itzulpen-estiloa definitu nahian.

Honako azterketa aurrera eramateko corpusetan oinarritutako metodologia deskriptiboaz baliatu gara, hau da, testu errealetatik ateratako adibidez osatutako corpus bat garatu dugu. Sorburu-testua eta idazlea aurkezteaz gain, itzulpena eta itzultzailea bere testuinguruan kokatu ditugu: garaiko euskal itzulpengintzaren egoera eta itzultzailearen eta itzulpenaren ezaugarriak aztertu ditugu. Garatutako corpusean, estiloa eta itzulpen-baliabideak bereizi ditugu. Lehenengoan, erregistroarekin zerikusia duten adibideak bildu ditugu. Bigarreanean, aldiz, mota desberdinetako adibide sorta (hitzak arruntak, fraseologia, esaera zaharrak eta kultur erreferentziak), itzultzailearen estiloa ahalik eta modu osoenean biltzeko helburuarekin. Amaitzeko, itzulpen-baliabideen azterketaren bitartez itzultzailearen balizko itzulpen-estiloari buruz identifikatutako zenbait joera aurkeztu ditugu.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	ITZULPEN-BALIABIDEEN AZTERKETARAKO METODOLOGIA	4
3.	IDAZLEA ETA SORBURU-TESTUA	6
	3.1 Maksim Gorke.....	6
	3.2 <i>Ama</i> eleberria	7
4.	ITZULTZAILEA ETA ITZULPENA: GARAIA ETA EZAUGARRIAK.....	8
	4.1 Euskal itzulpengintzaren egoera	8
	4.2 Itzultzailea.....	9
	4.3 <i>Ama</i> eleberriaren berezitasunak itzulpenaren ikuspuntutik	9
5.	AMA EUSKARATZEKO ITZULTZAILEAK ERABILITAKO BALIABIDEAK ...	10
	5.1 Estiloa	10
	5.2 Itzultzaileak erabilitako itzulpen-baliabideen analisisa.....	12
6.	ONDORIOAK.....	27
7.	BIBLIOGRAFIA	29

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan Maksim Gorki idazlearen *Ama* eleberria euskaratzeko garaian itzultzaileak erabili dituen teknika eta estrategien azterketa bat aurkeztuko dugu eta euskal itzultzailearen itzulpen-estiloa zehazten saiatuko gara.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera, itzulpena “testu bat beste hizkuntza batean emateko ekintza” da. Era berean, “beste hizkuntza horretan eginiko testu bera” da. Errusiera eta euskara bi hizkuntza guztiz desberdinak izaki, hizkuntza horien arteko jauzia handiagoa izango da. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere arau propioak izateaz gain, hura hitz egiten duen gizartearen isla izanda, bai euskarak, bai errusierak eguneroko errealitate desberdinak azaltzeko modu desberdinak izango dituztela pentsa daiteke. Ondorioz, testu bera lortzeko prozesuan, euskal itzultzaileak hainbat arazorekin topo egingo duenez, zenbait erabaki hartu beharko ditu. Itzulpen arazo horiei aurre egiteko, itzultzaile bakoitzak baliabide –teknika edo estrategia– baten edo bestearen alde egingo du. Hautu horiek itzultzaile-estiloa definituko dute, hau da, idazle batek adierazpen-baliabideak erabiltzeko modu jakina edo berezia (Harluxet, 2003). Gradu Amaierako Lan honetan eleberri honen itzultzaileak erabili dituen baliabide desberdinak identifikatu eta hautu horien balizko egokitasuna aztertuko dugu, ondoren itzultzaile honen itzulpen-estiloa definitzen saiatzeko.

Sarrera honen ondoren, bigarren atalean, lan honen helburua lortzeko erabili dugun corpusgintzan oinarrituriko metodologia deskriptiboaren nondik norakoak azalduko ditugu. Hirugarrenik, errusiar idazlea eta sorburu-testua (ST) aurkeztuko ditugu. Laugarren atalean, itzulpena eta itzultzailea bere testuinguruan kokatuko ditugu: garaiko euskal itzulpengintzaren egoera eta itzultzailearen eta itzulpenaren ezaugarriak aztertuko ditugu. Bosgarrenik, eleberri honen errusierazko eta euskarazko bertsoak alderatuko dituen corpusaren analisia aurkeztuko dugu. Horretarako, jatorrizko eta euskarazko testuak erabili ditugu, itzultzaileak aukeratutako baliabideak identifikatu eta aztertzeko, itzultzailearen balizko itzulpen-estiloa zehaztu nahian. Lan honetan eleberriaren lehen atala aztertu dugula kontuan hartuta, denborarekin eta beste datu-bilketa batzuekin lan hau osatzeko proposamena luzatzen dugu.

2. ITZULPEN-BALIABIDEEN AZTERKETARAKO METODOLOGIA

Errusiera eta euskara hizkuntzen arteko desberdintasunak direla eta, dela semantikoak, dela sintaktikoak, itzulpen-prozesuan zenbait arazo agertu ohi dira. Euskal itzultzaileak egoera horren aurrean zenbait erabaki hartu beharko ditu, eta beraz, teknika edo estrategia baten alde egin beharko du. Baliabide horiek aztertzeko metodologia deskriptiboaz baliatu gara, gure lana material errealean oinarrituta garatu baita. Horretarako, Maksim Gorkiren *Ama* eleberraren STa eta euskal itzulpena hartuta, identifikatutako adibideen corpus paralelo bat garatzea eta honen azterketa egitea izan da lan honen helburua.

Itzulpen ikerketek bi helburu nagusi dituzte: alde batetik, itzulpen fenomenoaz azaltzea, hau da, metodologia deskribatzailea. Bestetik, fenomeno hauek azaltzeko eta iragartzeko printzipio batzuk zehaztea, hau da, metodologia preskriptiboa (Holmes, 1988). Printzipio batzuk definitzeko, beharrezkoa da lehendabizi benetako testuen azterketa deskriptibo bat egitea eta erabili diren baliabideak zehaztea. Hori da lan honen xedea, eta horregatik aukeratu dugu metodologia deskriptiboa, hain zuzen ere.

Horretarako, lehenik eta behin, euskarazko eta errusierazko testuak lerrokatu ditugu, hau da, errusierazko testua ezkerrean eta euskarazko itzulpena eskuinean agertzen diren taula bat osatu dugu. Modu horretan, bi bertsioak alderatzeko garaian errazago identifikatu ahal izan ditugu itzultzaileak erabilitako baliabideak. Bi testuak aldi berean irakurtzen joan gara, horien artean aldaketarik eman den aztertzeko. Izan ere, euskarazko testua bere hutsean hartu izan bagenu, baliabideak identifikatzeko aukera mugatuagoa izango genukeen. Identifikatutako adibideak corpus paralelo batean biltzen joan gara, ondoren corpus horren azterketa egiteko helburuarekin. Corpus horretan, errusierazko testu zatiak ezkerrean eta euskarazkoak eskuinean kokatu ditugu eta itzulpen-baliabideen arabera sailkatzen joan gara.

Itzulpen-prozedurak aztertzeko garaian, Newmarkek proposatutako sailkapenean (Newmark, 1988: 82-93) oinarritu gara. Modu sistematiko batean antolatzeko baliagarriak izan diren arren, sarritan baliabideen arteko mugak nahiko lausoak direla onartu behar izan dugu. Izan ere, itzulpen erabaki batean bi baliabide gainjartzea gerta liteke. Esaterako, esaldi baten naturalizazioak, gehikuntza edo sinplifikazioa ekar ditzake. Lan honetarako ondorengo sailkapena erabili dugu:

- **Naturalizazioa:** sorburu-hizkuntzako (SH) elementuak xede-hizkuntzara (XH) moldatzea, lehenik ahoskerara eta ondoren, morfologiara.

- **Gehikuntza:** STan agertzen ez den zerbait gehitzean datza. Anitzak izan daitezke arrazoiak, besteak beste, anbiguotasuna ekiditea edota esaldia naturalizatzea.
- **Simplifikazioa:** STan azaltzen den hitz jakin batek xede-testuan (XT) esanahi-galera bat izatean datza.
- **Oharra:** itzultzaileak xede-kulturan testua ulertzeko beharrezkoa iruditzen zaion informazioaren gehikuntza da. Horien artean, oin-oharrak aurki ditzakegu. Orokorrean, SHko terminoak azalpen luzea behar duenean erabili ohi dira. Hala ere, kontuz ibili behar da baliabide honekin, oin-ohar luze eta ugariak astun bilaka baitaitezke irakurlearentzat.
- **Transferentzia:** SHko hitz jakin bat XHra ekartzea. Errusieraren kasuan, transliterazioa gertatzen da, hau da, hitza bere horretan mantentzen bada ere, XHko alfabetoko karakteretan idazten da. Orokorrean kultur erreferentziekin gertatzen da, tokian tokiko kutsua emateko xedearekin.
- **Hitzez hitzekoa:** STko egitura eta hitzak XTan mantentzean datza.

3. IDAZLEA ETA SORBURU-TESTUA

Itzulpen-baliabideen analisisian errusierazko testua aztertu dudanez, ezinbestekoa deritzot jatorrizko idazlearen biografia eta STaren aurkezpen labur bat egitea.

3.1 Maksim Gorki

Aleksei Maksimovitx Pexkov (Maksim Gorki) errusiar idazlea 1868an jaio zen Nizhni Novgorod hirian, klase erdiko familia xume batean. Haurtzaro gogorra izan zuen. Bost urte zituenean, aita hil zitzaion eta zortzi urterekin ama. Bi urte geroago, ikasketak utzi eta lanean hasi behar izan zuen aitonaren enpresan. 11 urte besterik ez zituela etxetik alde egin eta hainbat lanbidetan jardun behar izan zuen, besteak beste, zapatagile baten mutil edota ikono pintore baten mandatari. Miseriaz inguratuta bizi izan zen eta liburuak izan zituen babesgune.

Makar Txudra (1892) eta *Txelkax* (1895) ipuin erromantiko eta naturalistak izan ziren bere lehenengo idazlanak. Hurrengo urteetan, kazetari aritu zen egunkari batean eta berehala jaso zituen kritika onak. Estilo gordin eta ulergarrian deskribatzen zuen errusiar gehienek jasaten zuten bizimodu latza.

1899an lehen eleberria argitaratu zuen: *Foma Gordeiev*. 1901an kartzelan sartu zuten, Tsarren erregimenaren aurkako prentsa-artikuluak zirela eta. Klase arteko borrokan proletarioen alde argi eta garbi azaldu zen. XX. mende hasierako iraultza-saioak porrot egindakoan, Errusiatik alde egin behar izan zuen.

Estatu Batuetan zela, bere libururik arrakastatsuenak idatzi zuen: *Ama*. 1913an, tsarrak emandako amnistia medio, Errusiara itzuli zen. Iraultza Boltxebikeak eta Gerra Zibilak hartutako bidearekin larrituta, Leninekin zenbait eztabaida izan zituen, batez ere kultur politika komunisteri dagokionez. Desadostasun horiegatik, nahiz eta osasun arazoengatik zela argudiatu, Caprira alde egin zuen. 1928an Errusiara bueltatu, eta erreialismo sozialistaren bozeramaile bihurtu zen, bai eta SESBeko Idazleen Elkartearen lehendakari ere. 1936an hil zen Moskun oraindik zehaztu gabeko arrazoiengatik.

Maksim Gorki idazle autodidaktaren eredutzat hartzen da. Herri xehearentzat idazten zuen, eta haren liburu gehienek helburu didaktiko eta propagandistikoak zituzten. Errealismo sozialista korrontearen sortzailetzat jotzen da, zeinaren helburua jendea komunismoaren ezaugarriekin hezteka zen. Euskalgintzaren joera ezkertiarren testuinguruan nahiko egile kutuna izan zen 80ko hamarkadan.

3.2 *Ama* eleberria

Ama eleberria Gorkiren obra ospetsuena dela esan daiteke, bai eta errealismo sozialistaren eredu ere. Eleberria Nizhni Novgorodeko Sornovo langile auzoan gertatutako 1902ko Maiatzaren Leheneko manifestazioan oinarritzen da. Bertan parte hartu zuten Anna Zalomova eta bere seme Piotr Zalomovek. Tsarraren poliziak semea kartzelan sartu zuenean, Anna Zalomovak iraultza proletarioarekin jarraitu zuen.

New Yorkeko aldizkari amerikar batean argitaratu zen 1906an, ingelesera itzulita. Errusieraz, aldiz, 1907an publikatu zen, Berlinen. Errusian, zentsura zela eta, asko laburtu zuten. Ondorioz, jendeak klandestinitatean herrialdera iristen ziren zentsura gabeko aleak irakurtzen zituen.

Obraren helburua langile-mugimendua suspertzea zen. Nazioarteko langilerian eragin handia izan zuen, bai eta Leninen gorespena lortu ere, eleberriak mugimendu sozialistaren garaipena erakusten baitu.

4. ITZULTZAILEA ETA ITZULPENA: GARAIA ETA EZAUGARRIAK

Itzulpen bat ondo aztertzeko zenbait alderdi kontuan hartu behar dira. Lehenik, dagokion garaian kokatu behar dugu, jatorrizko idazlana bezalaxe, itzulpena ere testuinguru jakin batean sortzen baita: une horretan euskal literatura eta itzulpengintzaren egoera aztertu, eta itzulpen hau egitera eraman zuten baldintzak azalduko dira. Jarraian, autorearen ezaugarriak aipatuko dira, itzulpen-hautuak ulertzeko ezinbestekoak direnak. Azkenik, liburu honen euskal itzulpenaren berezitasunak nabarmenduko ditugu.

4.1 Euskal itzulpengintzaren egoera

Euskara hizkuntza koofizial bihurtzeko euskara zabaltzeko zeregina ekarri zuen. Euskal herritar asko euskalduntzen eta/edo alfabetatzen hasi ziren. Horrek itzulpenen beharra ekarri zuen (Jaka, 2005). Izan ere, euskalduntze prozesu horretan, irakurgaiak behar ziren, eta euskal idazleek eskaria ase ezinik, itzulpenen laguntza behar izan zuten, haur literaturan, batez ere. 70eko eta 80ko urteetan, euskal argitaletxeen loraldia gertatu zen eta horiek zenbait bilduma sortu zituzten. Orokorrean argumentu sinpleko abentura-nobelak itzultzen ziren, gehienbat gaztelaniatik eta ez, ordea, SHTik. Itzulpenak baino laburpen-moldaketak zirela esan daiteke, STko konplexutasun sintaktiko, zein lexikoak sinplifikatu edo ezabatu egiten baitziren. Gehiegizko eskaria zela eta, behin-behineko itzultzaile edo itzultzaile amateurrek egiten zituzten itzulpenak. Ondorioz, urte horietan itzulpenen kopuruak gora egin bazuen ere, kalitatea ez zen neurri berean igo. 80ko hamarkadan euskal idazleen eta itzultzaileen elkarteak eratzen joan ziren, eta 1980ean Martuteneko Itzultzaile Eskola sortu zen, itzulpen arruntak egiten ikastera bideratutako lehen itzulpen eskola. (López Gaseni).

1989an Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteten Elkarteak (EIZIE) “Literatura Unibertsala” izeneko bilduma bat sortzeko erabakia hartu zuten, klasikoen (XIX. eta XX. mendeetako autore klasikoen lanak, gehienbat) kalitatezko itzulpenak egitera bultzatzeko helburuarekin. Edonorrentzat zabaldu zen eta lehiaketa baten bidez esleitzen zuten horien itzulpena. Lehen lehiaketa 1989an egin zen, eta zazpi liburu argitaratu ziren Ibaizabal argitaletxean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. (Jaka, 2005). Lehenengo argitalpen horien artean, Jonathan Swiften *Gulliver-en bidaiak* Iñaki Mendigurenek itzulita, Abbé Prevost idazlearen *Manon Lescaut* Anton Narbaizak itzulita eta Anton Txekhoven *Ipuinak* Xabier Mendiguren Bereziartuak itzulita aurki ditzakegu, besteak beste (EIZIE, 2010).

4.2 Itzultzailea

Jose Morales Belda Bilbon jaio zen 1960an, eta hemezortzi urte arte ez zen euskara ikasten hasi. Kazetaritzan lizentziatua, itzulpengintzarekin lehen saiakerak AEKn itzulpen zerbitzuan izan ziren, eta geroztik itzultzaile lanetan aritu da. “Arrazoi kultural eta ideologikoengatik” hasi zen errusiera ikasten, eta beti izan zuen Errusiar literaturarekiko zaletasuna. Maksim Gorkiren *Ama* izan zen hain justu errusieratik itzuli zuen lehen eleberria, zeina 1995. urtean argitaratu zen Literatura Unibertsala bildumaren baitan. Aurretik zenbait itzulpen apal eginak zituen, baina honakoa izan zen bere lehen liburua. Prestakuntzari dagokionez, autodidaktatzat du bere burua. Itzultzen hasi zenean, itzulpengintzari buruzko hainbat liburu irakurri zituen, horien artean, Newmark, Garcia Yerba, eta Mendiguren (Biguri, 1998). Gaur egun, errusieratik euskarara literatura-obra gehien itzuli dituen autorea da, guztira zazpi eleberria itzuli baititu. Horien artean Euskadi Saria irabaztera eraman zuen *Gure garaiko heroia* liburuaren itzulpena.

4.3 *Ama* eleberraren berezitasunak itzulpenaren ikuspuntutik

Ama eleberria, Jose Moralesek errusieratik euskaratu zuen lehen eleberria izateaz gain, norabide horretan zuzenean itzuli den lehen literatura-lana ere bada. 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran ugariak izan ziren errusiar literatura euskaratzeko saiakerak, besteak beste, Anton Txekhoven *Ipuinak* eta Lev Tolstoiren *Ivan Ilitxen heriotza* obren Xabier Mendiguren Bereziartuaren itzulpenak, Literatura Unibertsala bildumaren baitan ere (EIZIE, 2010).

Aurreko saiakera horietan, ordea, zuzenean itzuli beharrean hirugarren hizkuntza bat erabiltzen zen zubi hizkuntza bezala, hau da, errusiar obraren itzulpenen bat euskaratzen zen. Xabier Mendigurenen kasuan, alemaneko bertsioetan oinarritu zen (EIZIE, 2017). Modu horretan, itzultzaileak errusiera jakin gabe, hizkuntza horretan idatzitako liburuak ekarri zitzaizkeen euskarara. Hala ere, Jose Moralesen esanetan “errusieratik euskarara itzultzea ez da, berez, beste edozein hizkuntzatatik itzultzea baino zailagoa” (Biguri, 1998). Izan ere, euskarak ez du antzik ez errusierarekin ez beste edozein hizkuntzarekin. Beraz, errusieratik euskaratzea frantsesetik itzultzea bezain nekeza izan liteke, esaterako.

5. AMA EUSKARATZEKO ITZULTZAILEAK ERABILITAKO BALIABIDEAK

5.1 Estiloa

Itzultzailearen hitzetan, “itzultzeko zailtasuna ez datza (...) jatorrizko hizkuntzan bertan, itzuli nahi den autorearen hizkera edo liburu jakin baten ezaugarrietan baizik”. Bere ustez, ordea, *Ama* “oso estilo erraz, lau eta koxka handirik gabean idatzirik dago, herri xehearentzako propaganda-lan gisa idatzi baitzuen Gorkik, garai hartako langileek eta nekazariak aise ulertzeko moduan” (Biguri, 1998). Itzulpena aztertzerako garaian, itzultzailearen estiloan zenbait joera identifikatzen ditugula iruditzen zaigu, nahiz eta lan zabalago bat beharko litzatekeen benetan estilo jakin bat ote den zehazteko.

Aurretik aipatu dugun moduan, itzultzailea Bizkaian jaiotakoa izanik, espero izatekoa zen bertako dialektoaren eragina izatea: horren adibide izan daiteke, esaterako, *zantar*, *jesarri* edota *eskegi* bezalako hitzak txertatu izana (1. taula). Horrez gain, nabarmena da iparraldeko euskalkietako hitzak erabiltzeko daukan joera handia: 2. taulan ikus ditzakegu *mutirikeria*, *ximenki*, *kilimusi* eta *ozartasun* hitzak, besteak beste.

1. taula

Раздавались хриплые восклицания сонных голосов, грубая ругань зло рвала воздух	Ahots logaleen oihu zakarrek burrunba egiten zuten, birao zantarrek amorruz urratzen zuten airea.
Когда гроб зарыли - люди ушли, а собака осталась и, сидя на свежей земле, долго молча нюхала могилу.	Hilkutxa lurperatutakoan jendeak alde egin zuen, baina zakurra bertan gelditu zen eta, lur hozkirrian jesarrita , luzaroan egon zen hilobia usnatzen isilik.
Несколько стульев, комод для белья, на нем маленькое зеркало, сундук с платьем, часы на стене и две иконы в углу.	Aulki batzuk, mihiseriarako komoda bat eta gainean ispilu txiki bat, arropa gordetzeko kaxa bat, erloju bat horman eskegita eta bi ikono zoko batean.

2. taula

Они выпрашивали, рассматривали, нюхали и сразу бросались всем в глаза, одни - подозрительной осторожностью, другие - излишней навязчивостью .	Galdetu, arakatu, usnatu egiten zuten, eta agerian geratzen ziren berehala guztien begien aurrean, batzuk beren zuhertasun susmagarriagatik, besteak gehiegizko mutirikeriagatik .
Потом, крепко и тщательно вытирая руки, заговорил:	Gero, eskuak indartsu eta ximenki lehortzeaz batera, hizketan hasi zen:
Перед ним снимали шапки, кланялись ему	Parera iristean txanoak erantzi eta kilimusiak egiten zizkioten.
В этой женщине было что-то размашистое , слишком бойкое и торопливое.	Emakume horrengan bazen halako ozartasun bat, biziegia eta lehiatsuegia.

Jakina denez, euskalki bateko hiztunek beste euskalkietako hitzak jasoagotzat hartu ohi dituzte, horien artean iparraldeko hitzek hegoaldean duten prestigio berezia aipa daitekeelarik. Literatura-lanetan, eta oro har euskararekin loturiko edozein jardunetan, hegoaldearen nagusitasuna dela eta, hizkuntza literarioan iparraldeko euskalkietako hitzak egunerokotasunetik urrunagoa geratzen dira, eta ondorioz, kutsu jasoagoa ematen diote. Nabarmendu daiteke, besteak beste, lapurtera klasikoak euskal literaturan izan duen prestigioa. Kasu honetan, eleberri hau itzultzerako garaian itzultzaileak erregistroa igo duela esan genezake. Horren erakusle diren fenomenoaren artean, ondorengoak aipa ditzakegu: iparraldeko euskalkietako hitzen erabilpena (2. taula), *itzalgaizka*, *saindu* eta *laido* bezalako kultismoak (3. taula) edota *ziotson*, *zeritzan*, *zekusan* eta *zetzan* bezalako adizki trinkoen erabilpen maila altua (4. taula).

3. taula

Он начал приносить книги и старался читать их незаметно	Liburuak ekartzen hasi zen, itzalgaizka irakurtzen saiatzen zen
наша святая , равноапостольная церковь.	Bada, misterioen tokia gure eliza apostoliko saindua da
оскорбленная, в гневе или слезах обиды	minduta, koleratsu, jasandako laidoengatik negarrez

4. taula

Ее звали Сашенька	Sashenka zeritzan
- Не плачь! - говорил Павел ласково и тихо, а ей казалось, что он прощается	— Ez negarrik egin! — ziotson Pavelek maitekero, ahots apalez,
В гробу лежал с открытым ртом	Aho zabalik zetzan hilkutxan
Мать уже лежала в постели и не видела его лица	Ama ohean zetzan jada eta ez zekusan haren aurpegia
но он видел близко перед собой наслаждение отдыха	Hala ere, oso hurbil zekusan aurrean atsedenaren gozotasuna
Сашеньку видела! - говорила она сыну. - Кланяется тебе.	— Hau ulertu egiten diat, Pasha! — ziotson amak janzten zen bitartean—.

5.2 Itzultzaileak erabilitako itzulpen-baliabideen analisisa

Metodologia azaltzerako garaian zehaztutako itzulpen-baliabideak aztertzean, mota desberdinetako adibide sorta bildu dugu: hitz arruntak, fraseologia, esaera zaharrak eta kultur erreferentziak, hain zuzen ere. Bilketa mota hau orokorregia izan daitekeen arren, lan honen helburua itzultzailearen estiloa ahalik eta modu osoenean biltzea izan da. Haatik, era guztietako adibideak biltzea iruditu zaigu egokiena. Izan ere, baliabide jakin bat hitz arrunt bat itzultzeko erabili daiteke, bai eta kultur erreferentzia bat itzultzeko ere. Horregatik, baliabide bakoitzeko adibideak zenbait ataletan banatu ditugu:

- **Hitz arrunta:** edozein hizkuntzetatik itzulitako eleberrietan aurkitu daitezkeen hitzak dira.
- **Fraseologia:** “hitz konbinazio egin batzuk, eginak, finkatuak edo ihartuak” dira eta hizkuntza jakin bateko arauak errespetatzen dituzte (Kaltzakorta, 2001).
- **Esaera zaharra:** arbasoengandik jasotako esaerak dira, eta balorazio bat, printzipio moral bat edo herri-jakinduriari zor zaion ezagutza bat laburbiltzen dute.
- **Kultur erreferentzia:** “Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoari” erreferentzia egiten dioten hitzak dira (Harluxet, 2003).

I. Naturalizazioa:

STan agertzen diren hitz eta egiturak SHko arauetara moldatzea hizkuntzako hainbat mailatan gerta daiteke. Kasu honetan, fraseologia, esaera zaharren eta kultur erreferentzien adibideak bildu dira.

FRASEOLOGIA

5. taula

- Пошел к черту, - я сам умру!.. Сволочь! - прохрипел Михаил.	— Ноа pikutara , neu bakarrik hilko nauk! Jendaila! —esan zuen Mikhailek ahots erlatsez.
- Убирайся к черту с ножом! - крикнул хохол и вдруг засмеялся.	— Ноа pikutara hire labanarekin! —oihu egin zuen jojolak, eta barre algaraka hasi zen bat-batean.

5. taulako adibideetan, STan hitzez hitz “joan hadi deabruarengana” jartzen du; errusieraz formula hau norbait haserre edo gaitzespena azaltzeko erabiltzen da. Euskal irakurleak adiera hori ulertuko ez duelakoan, euskaraz madarikatze garaian erabiltzen den fraseologiaz baliatu da, eta beraz, itzultzaileak errusiar lokuzio hau naturalizatzea erabaki duela esan dezakegu. Gainera, itzultzaileak koherentzia mantendu du, lokuzio hau agertzen den bi alditan “hoa pikutara” itzuli baitu.

6. taula

Будучи обижена зрителем тюрьмы, она объявила ему, что уморит себя голодом, если он не извинится перед ней, и восемь дней не кушала, по какой причине едва не протянула ножки .	Behinola kartzelako zaintzaile batek iraindu egin zuen, eta honek jakinarazi zion barkamenik eskatu ezean gosez hilko zuela bere burua, eta zortzi egunez ez zuen ezer jan, eta horren ondorioz ozta-ozta ez zitzaion hanka hoztu .
---	--

6. taulan agertzen den errusiar lokuzioak hitzez hitz “hanka luzatu” esan nahi du, baina zehazki norbait hil dela adierazten du. Euskaraz, aldiz, bere horretan itzuliko balitz, euskal irakurleak ez luke ulertuko honen esanahia. Horregatik, itzultzaileak esapidea naturalizatzea erabaki du, eta euskaraz hankarekin lotura duen eta esanahi bera duen lokuzioaren alde egin du. Hala ere, euskal jendartean lokuzio hori ez dago oso zabalduta, eta corpusetan sarrera gutxi ditu; Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian, esaterako, sarrera bat besterik ez du. Horregatik, nahiz eta esaera hau berreskuratzen ahalegindu den, euskal irakurleak kostata ulertuko duela pentsatzen dut.

7. taula

-Меня-то пропустили бы! - попросила мать. - Видите, человек с ношей, спина ломится!	— Ni utziko nauzue pasatzen, ezta? —eskatu zien amak—. Begira nolako zama astuna daramadan bizkarrean, hauts eginda nago!
--	--

7. taulako STan hitzez hitz “bizkarra hausten ari zait” jartzen du. Itzultzaileak aurreko esaldian jada aipatu du *bizkarra* hitza, eta naturalizatze ahalegina egin du, baina argi eta garbi gaztelararen interferentzia adibidea dugu hau. Gaztelaraz, “estoy hecho polvo” esango litzateke; euskaraz, aldiz, ez da horrelakorik esaten eta itzulpen kutsua ematen dio. Ohikoagoa da “leher eginda egon” lokuzioa, esaterako.

8. taula

-Что-то уж очень строга Сашенька! Все приказывает - вы и то должны, вы и это должны... Хохол громко засмеялся. -Верно взято! Вы, ненько, в глаз попали! Павел, а?	— Zein latza den Sashenka hori! Beti aginduak ematen: hau egin behar duzue, hori egin behar duzue... Jojola barre algaraka hasi zen. — Hori bai egia biribila! Bete-betea asmatu duzu , enetxoa! Ezta, Pavel?
--	--

8. taulako adibidean, jatorrizko bertsoan hitzez hitz “begian eman duzu” jartzen du. Errusieraz bada *popast` ne v brov`, a v glaz* fraseologia, funtsean, zerbaitetan asmatzea esan nahi duena. Kasu honetan itzultzaileak euskarazko lokuzio batekin naturalizatzea erabaki du, jatorrizkoa mantenduz gero, euskal irakurleak esanahia ulertzeko arazoak izan litzakeelako. Horregatik, aukeraketa ona egin duela deritzot.

9. taula

А если мы ухитримся испортить им эту обедню, так они и совсем в дураках останутся.	Eta guk haien asmoak hankaz gora jartzeko modua asmatzen badugu, aho bete hortz utziko ditugu.
--	--

9. taulan naturalizazioaren bi adibide aurki ditzakegu. Alde batetik, *isport* hitzak “kaltetu” esan nahi du. Euskarazko bertsoan, aldiz, euskarazko lokuzio batekin itzultzea erabaki du. Eta, beraz, esaldia naturalizatzea lortu du, bai eta adierazkortasun handiagoa ematea ere.

Bestetik, *v durakah ostanutsa* errusiar lokuzioarekin aurkitzen gara. Hitzez hitz “tonto geratu” esan nahi du, eta funtsean, iruzurrari egiten dio erreferentzia. Euskaraz gaztelaniatik hartutako “tonto aurpegiarekin geratu” lokuzioa nahiko zabaldua dago. Itzultzaileak, aldiz, lokuzioa naturalizatu du. Bere interpretazioa, ordea, jatorrizkoan adierazten denetik aldentzen dela uste dut, “aho bete hortz” geratzea norbait txundituta uztearekin baitago lotuta, baina ez du iruzurraren konnotazio hori.

ESAERA ZAHARRAK

10. taula

- А что ж? - отозвался он. - Коли вы читали - легко вспомнить. Не будет чуда - нет худа, а будет чудо - не худо!	— Zergatik ez ba? —arapostu zuen hark—. Lehenago ere irakurri duzunez, aise gogoratuko zaizu. Miraria badator bon-bon, eta ez badator egon!
---	--

10. taulako STan errusierazko esaera zahar bat azaltzen da. Hitzez hitz honakoa esan nahi du: “miraririk ez badago ez da kezkatu behar, baina miraria badago ez dago batere gaizki”. Itzultzaileak euskaraz esanahi antzekoa duen esaera zaharra hartu du, hau da, “dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon” eta errusierazko testuan aipatzen den *miraria* hitza txertatu du. Horrela, errusiar esaera-zaharra hitzez hitz itzuli beharrean, euskal irakurleari ezagun zaion esaera zaharra STko ideiarekin bateratu du, eta efektu interesgarria lortu duela esan daiteke.

11. taula

- Не горевать тебе, а радоваться надо бы. Когда будут матери, которые и на смерть пошлют своих детей с радостью?.. - Гон, гоп! - заворчал хохол. - Поскакал наш пан, подоткнув кафтан! ..	— Atsekabetu beharrea, alaitu egin beharko zenuke. Noiz sortuko ote dira seme-alabak heriotzara alaitasunez bidaliko dituzten amak? — Et, et, et! —purrustadaka hasi zen jojola—. Hau ehiztari nahasia, erbirik ez eta tiroka hasia.
---	--

11. taulan errusierazko esaera zahar bat agertzen da; hitzez hitz “gure jauna saltoka hasi da, *kaftanean* sartu bezain pronto” esan nahi du, eta funtsean, zerbait azkar eta presaka egitearekin lotuta dago. *Kaftan* hitza euskal irakurleari seguruenik ezezaguna egingo zaio (antzinako errusiar berokia da), eta esaera zahar mantendu nahiko balu, lehendabizi errusiar kulturako elementu hori azaldu beharko luke. Itzultzaileak, ordea, errima propioa sortzea erabaki du jatorrizko esaera zaharraren esanahia mantenduz, euskal irakurleak mezua hobeto ulertuko duelakoan. Kasu honetan, 10. adibidean ez bezala, hutsetik sortu du errima.

KULTUR ERREFERENTZIAK

12. taula

Ходил на вечеринки, выучился танцевать кадриль и польку, по праздникам возвращался домой выпивши и всегда сильно страдал от водки.	Gau-jaietara joaten zen, kontradantza eta polka dantzatzen ikasi zuen, jaiegunetan mozkortuta itzultzen zen etxera eta asko sufritzen zuen beti vodkaren eraginez.
---	---

Kadril XIX. mendean modan egon zen dantza frantses bat da (frantsesezko *quadrille*). 12. taulan ikus dezakegun moduan, itzultzaileak "kontradantza" bezala itzuli du, nahiz eta hori beste dantza bat izan. *Kuadrilla* dantza frantziar gorteetan kontradantzatik garatutako dantza da, hain zuzen ere. Baliteke itzultzaileak naturalizatzen saiatu izana pentsatuz agian euskarazko irakurleak ezagunago izango zuela kontradantza. Horrez gain, euskaraz *kuadrilla* hitzak duen konnotazioa kontuan hartuta, anbiguotasunak saihesten ahalegindu da.

13. taula

Все, чего человек не смеет сказать при людях - в трактире, например, - что это такое есть? Тайна! Тайне же место - наша святая, равноапостольная церковь.	Zer ote da gizakia jende aurrean, tabernan adibidez, esaten ausartzen ez den hori? Misterioa! Bada, misterioen tokia gure eliza apostoliko saildua da.
--	---

Ravnoapostolny eliza ortodoxoan eta Bizantzioko katolizismoan santu batzuei ematen zaien titulu berezia da. Erligio katolikoa zabaltzen jatorrizko apostoluek egindako ahaleginarekin alderatu daitekeen esfortzu handia aitortzeko ematen da. Eliza

katolikoan horrelakorik ez dagoenez, azalpen bat eman beharrean, naturalizazioaren alde egin du (13. taula), eta “eliza apostoliko saildua” itzuli du. Oinarrizko esanahia ulertzen laguntzen digu, baina konnotazio galera bat gertatzen dela iruditzen zait.

14. taula

Поставив ковш на стол, она молча опустилась на колени перед образами .	Ur ontzia mahai gainean utzi eta apalki belaunikatu zen ikonoen aurrean.
- А то говорят: на образ взглянешь - свят не станешь!	— Baina hau ere esan ohi dute: sainduen irudiei begiratzeak ez du inor saildu bihurtzen.

Obraz hitzak jatorriz “irudi” adiera du, eta errusiar irakurleak testuinguru horretan *irudi* hitzarekin santuaren irudiari buruz hitz egiten ari dela ulertzen du. Euskaraz, aldiz, *irudi* hitza bere horretan itzuliz gero, euskal irakurleak mezua jasotzeko zailtasunak izango lituzke. Horregatik, itzultzaileak “ikono” itzultzea erabaki du (14. taula). Hala ere, aurrerago errusiar esaera zahar batean *obraz* hitza agertzen da eta “sainduen irudi” itzultzen du, eta, beraz, ez du koherentzia mantendu. Nire uste apalean bigarren aukera zuzenagoa da, gurean *ikono* hitzak izan dezakeen anbiguotasunagatik.

15. taula

- Так? Врешь! Ей ты говорил ласково, ей говорил - нежно, я не слышал, а - знаю! А перед матерью распустил героизм... Пойми, козел, - героизм твой стоит грош!	— Horrela? Gezurra! Harekin maitekiro mintzatu haiz, samur mintzatu haiz, nik ez haut entzun, baina bazekiat! Amaren aurrean, aldiz, heroi gisa agertu behar huen... Ea ulertzen duan, astakirten alaena: hire heroitasunak ez dik ezta lau zorri ere balio!
--	---

15. taulan STan erreferentzia kultural bat aurkitzen dugu, hau da, *grox* hitza. Errusian 1917. urte arte *kopek* txanponaren balio erdia zuen moneta da. Itzultzaileak kultur erreferentzia hori itzuli beharrean, esaldiaren zentzua hartu eta euskal lokuzio baten bitartez itzuli du: “ez dik ezta lau zorri ere balio!”. Funtsean, baliorik ez duela esan nahi du. Horregatik, itzultzaileak esaldia naturalizatu duela esan dezakegu, eta aukeraketa horrekin bat egiten dut.

II. Gehikuntza:

Askotan inkontzienteki erabiltzen den estrategia da, bestetan, aldiz, esaldiak naturalizatzeko, hitzen anbiguotasunak ekiditeko edota kultur erreferentziak azaltzeko erabiltzen da modu kontzientetan.

HITZ ARRUNTAK

16. taula

- Двое жандармов взяли Николая под руки, грубо повели его в кухню. Там он остановился, крепко упираясь ногами в пол, и крикнул: - Стойте... я оденусь!	Bi jendarmek Vesovstxikovi besoetatik heldu eta sukaldera eraman zuten arrastaka. Han, hankak zoruan gogor finkatuz, gelditzea lortu eta oihu egin zuen: — Itxaron... berokia jantziko dut!
---	---

16. taulan errusierazko testuan “jantzi egingo naiz” jartzen du. Itzultzaileak, ordea, gaizki ulerturik egon ez dadin zer janzten duen zehaztu du, nahiz eta jatorrizkoan modu inplizituan ez den informazio hori ematen. Anbiguotasunak ekiditeko saiakera bat izan daiteke.

17. taula

а встречу людямплыли иные звуки	Baina bestelako hotsak ere iristen ziren jendearen <u>belarrietara</u>
--	---

17. taulako adibidean itzultzaileak bere horretan mantendu eta “jendearengana” itzuli zezakeen. Kasu honetan, itzultzaileak *belarri* hitza gehitu nahi izan du, segur aski esaldia naturalizatzeko xedearekin. Adibide honetan garbi ikusi dezakegu aurretik aipatu duguna, hau da, baliabideen arteko mugak ez direla zehatzak. Izan ere, kasu honetan gehikuntzaren bitartez naturalizazioa lortu da.

18. taula

Они отыскивали их где-нибудь под забором на улице или в кабаках бесчувственно пьяными	Edozein tokitan aurkitzen zituzten, kale <u>gorrian</u> harresi baten oinean edo tabernan, konortetik gabe mozkorren ondorioz.
--	---

18. taulan agertzen den STan *kalean* hitza agertzen da soilik; itzulpenean, ordea, *gorri* hitza gehitu du. Gure hizkuntzan gorriak biluztasuna, laztasuna eta intentsitateari atxikitako kontzeptuak adieraz ditzake (Euskaltzaindia). Kasu honetan, intentsitate handiagoa ematea izan da itzultzailearen helburua, bai eta esaldia naturalizatzea ere.

KULTUR ERREFERENTZIAK

19. taula

На Кавказе был, духоборцев знаю.	Kaukason izan nauk, dukhoborstvo <u>sektakoak</u> ezagutzen ditiat.
---	--

19. taulako adibidean agertzen den kultur erreferentzian, testu barruan azalpen bat gehitzea erabaki du itzultzaileak. Horrez gain, oin-ohar bat gehitu dio sekta horri

buruzko informazioa emateko. Nire ustez, bi baliabideak erabiltzea gehiegizkoa da, izan ere, testuan talde hau behin aipatzen da eta ez dauka garrantzia berezirik.

III. Simplifikazioa:

Hitz jakin baten esanahian galera bat izatean datza. Hitz arruntetan gerta daiteke, bai eta kultur erreferentzietan ere.

HITZ ARRUNTAK

20. taula

Во тьме и сырости осеннего вечера визжала гармоника, кто-то громко пел, кто-то ругался гнилыми словами, тревожно звучали раздраженные, усталые голоса женщин...	Udazkeneko arrats ilun hezean akordeoiaren soinua aditzen zen, ozenki kantatzen ari zen baten bat, hitz zantarrez biraoka beste norbait, urduri entzuten ziren emakumeen ahots koleratsu eta nekatuak...
--	---

20. taulako adibidean itzultzaileak “akordeoiaren soinua aditzen zen” itzuli du, baina STan soinu hori nolakoa zen azaltzen du. *Vizhala* hitzak “soinu karrankaria egin” esan nahi du, hau da, hots zoli, bizi edo ezatsegina ateratzen duela. Xehetasun horrek deskripzio guztian eragin dezake, akordeoiaren soinua printzipioz egoera alai bat adierazi baitezake. Ñabardura horrekin, ordea, egoera desatsegina zela pentsa genezake. Hala ere, 21. taulako eta 23. taulako adibideetan bezalako garrantzia ez duela deritzot.

KULTUR ERREFERENTZIAK

21. taula

в разорванной одежде, в грязи и пыли, с разбитыми лицами, злорадно хвастаясь нанесенными товарищам ударами	jantziak urraturik, lohi eta hautsez beteta, aurpegiak maztaildurik, lagunei emandako zartadez zitalki harrotuta
Раньше к нему заходили товарищи	Lehen, lagunak bila etortzen zitzaizkion etxera
Все больше становилось книг на полке, красиво сделанной Павлу товарищем -столяром.	Gero eta liburu gehiago pilatzen ziren adiskide zurgin batek Paveli egindako apalategi txukunean
- Э, вы еще молоды, товарищ , мало луку ели!	— Ah, zu gaztea zara oraindik, lagunkidea , tipula gutxi jan duzu!
Павлу приходили товарищи , каждое собрание являлось ступенью длинной пологой лестницы	Larunbatero lagunkideak Pavelen etxean elkartzen ziren, bilera bakoitza maila berri bat zen

Tovaristx errusiar kulturaren elementu ezagunenetakoa da. Errusiar Iraultzatik aurrera ohiko tratamendua zen testuinguru formalean, bai eta ezezagunei zuzentzeko tonu formalean. Itzultzaileak, ordea, hitz hori sinplifikatzea erabaki du. Horrez gain, hitz berbera itzultzeko *lagun*, *lagunkide* eta *adiskide* hitzak erabili ditu. *Tovaristx* hitza

agertzen den guztietan adiera bera erabiltzea egokiagoa dela deritzot. Euskaraz bada *kamarada* hitza eta bere erabilera oso zabaldua dago. Nire uste apalean, kasu honetan transferentzia hori beharrezkoa da testuinguru sozialista batean kokatutako eleberria baita.

22. taula

Будто он устраивает артель такую, вроде хлыстов. Секты - называется это. Сечь будут друг друга, как хлысты...	Talde bat eratzen ari dela zioten, khlistena bezalako talde bat hain zuzen ere. Sekta esaten zioten horri. Zartailuz jotzen omen ditene elkar, khlistek egiten duten bezalaxe.
--	---

22. taulako STan errusiar kulturako erreferentzia bat azaltzen da. *Artel* Errusiar inperioko garaietan eta Sobietar Batasunean ekintza kolektiboak egiteko edota lankidetzarako elkartzen ziren boluntario talde bat zen. Itzultzaileak hitza sinplifikatzea erabaki du, kontuan hartuta ondoren *khlistena* hitza azaltzeko oin-ohar bat txertatu duela eta oin-ohar gehiegi ez erabiltzea hobesten dela. Horrez gain, itzultzaileak gehikuntza bat egin du, testuan bertan *talde* hitza bigarren aldiz txertatu baitu *khlistena* hitzaren alboan. Itzultzailearen hautua egokia izan dela deritzot.

23. taula

У постели матери появился слободский полицейский Федякин и, приложив одну руку к фуражке , а другою указывая в лицо матери, сказал, сделав страшные глаза	Amaren ohe alboan Fediakin auzoko polizia agertu zen eta, esku bat kapelura eramanik eta bestea amaren aurpegira zuzenduz, begiratu izugarria egotziz esan zuen
Вычурно изогнутой рукой он снял картуз , взмахнул им в воздухе и ушел, оставив мать в недоумении.	Era arranditsuan kapela erantzi, esku kakotuaz airean astindu, eta han alde egin zuen ama zur eta lur utzirik.
из-под круглой измятой шляпы жидкими прядями бессильно свешивались желтоватые прямые волосы.	ile zimel horixkak, xerlo mehatzetan, indarge erortzen ziren kapela biribil, zimurtutik behera.
шагал Николай, оборванный, грязный, в тяжелых сапогах, в шапке на затылок, неуклюжий, точно пень, вывороченный из земли	oinez zebilen Nikolai, zarpail, zikin, bota luze astunekin, txanoa garondoaren parean, baldar, lurretik erotik ateratako tantaia bailitza.
Ефим надел картуз и молча, ни на кого не глядя	Efimek txanoa jantzi zuen eta isilik, inori begiratu gabe,
и как он поправлял шляпу , сползавшую ему на нос	eta nola zuzentzen zuen txanoa , sudur gainera erortzen zitzaion eta.

23. taulan ikusi dezakegun bezala, STan Errusian dauden hainbat buruko mota azaltzen dira: *furazhka*, *kartuz*, *xliapa*, *xapka*. Itzultzailea bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu gabe, *kapela* eta *txapela* hitzekin itzultzero mugatu da. Lehenik eta behin, buruko horiek beraien artean oso desberdinak dira: *furazhka*, armadak eta poliziak erabiltzen duen burukoa da; *kartuz*, oihal edo larruz egindakoa bisera moduko buruko arina da; *xliapa*, hegaldun burukoa da; *xapka*, forma konikoko buruko goxoa. Bestetik, itzultzaileak *kapela* eta *txano* hitzak erabiltzen ditu buruko mota berari buruz hitz egiteko. Baina bi adiera horiek ez dira guztiz berdina. Euskaltzaindiaren arabera, *kapela* “burua estaltzeko jantzi aski zurruna, gehienetan hegalduna” da; *txanoa*, aldiz, “buru estalki konikoa”. Horregatik, itzultzaileak ez du koherentzia mantendu. Nire ustez, buruko bakoitzari itzulpen bat eman behar dio, eta itzulpen hori agerraldi guztietan mantendu.

IV. Oin-oharra:

Itzultzaileak baliabide hau kultur erreferentziekin erabili du. Testuan hitza transferentzia batez mantendu eta euskal irakurleari eleberria ulertzeko beharrezkoa iruditzen zitzaion informazioa gehitu du baliabide honen bitartez. Hona hemen zenbait adibide:

ESAERA ZAHARRAK

24. taula

<p>Вы не татарин будете? Человек дрыгнул ногами и так широко улыбнулся, что у него даже уши подвинулись к затылку. Потом он серьезно сказал:</p> <p>- Нет еще.</p> <p>- Говор у вас как будто не русский! - объяснила мать, улыбаясь, поняв его шутку.</p>	<p>Zu tatariarra zara? Gizonak hankak luzatu zituen eta hain irribarre zabala egin zuen ezen belarriak ere garondoraino atzeratu zitzaizkiola ematen baitzuen. Gero, serio esan zuen:</p> <p>— Oraindik ez!</p> <p>Itxuraz, zure hizkera ez da errusiarra! —azaldu zion amak irribarreka, broma ulerturik.</p>
---	---

24. taulako adibidean itzultzaileak pertsonaiak egiten duen broma mantentzea erabaki du, eta oin-oharra txertatu du hura azaltzeko: *errusiar herri-esaera zahar batek hala dio: “Behar gabeko bisitaria, tatariarra baino okerragoa”*. Aukeraketa egokia dela deritzot. Izan ere, itzultzaileak txertatutako azalpenik gabe euskal irakurlea kostata jabetuko da txantxa horretaz.

KULTUR ERREFERENTZIAK

25. taula

- Он - лучше русского! - весело кивнув головой, сказал гость. - Я хохол , из города Канева.	— Errusiera baino hobea da! —esan zuen bisitariak burua alaitasunez mugituz—. Jojola naiz, Kanev hirikoa.
--	--

25. taulan ikus dezakegun bezala, itzultzaileak testuan bertan *Jojol* hitza bere horretan ematea eta oin-ohar baten bitartez ukrainarrei lagunartean eta iseka kutsuarekin erreferentzia egiteko erabiltzen dela azaltzen du. Eleberrian sarritan azaltzen den hitza izanik, garrantzitsua deritzot euskal irakurleak uler dezan. Horregatik, itzultzaile-hautua egokia izan dela pentsatzen dut.

26. taula

Старый литейщик Тверяков и его постоялец, кочегар Рыбин, солидный черный мужик .	Tveriakov galdari zaharra eta etxean apopilo zeukan Ribin sugina, mujik mardul eta beltzaran bat.
---	--

26. taulako adibidean, itzultzaileak testuan terminoa transferentziaren bitartez bere horretan utzi eta oin-ohar baten bidez *mujik* antzinako Errusian nekazariei deitzeko herriak erabiltzen zuen hitz arrunta dela azaltzen du. 25. taulan gertatzen den moduan, garrantzia handiko hitza da eleberri honetan, langileen eta mujiken arteko bizitzen aldea asko jorratzen den gaia baita. Horregatik, itzultzailearen aukera egokia izan dela deritzot.

27. taula

Зер гут! как говорит хороший немец, когда выпьет ведро пива.	— Sehr gut! Garagardo bete kupela edatean alemaniar jatorrak esan ohi duen legez.
---	--

27. taulako adibidean ikusi dezakegunez, STan idazleak alemanez hitz batzuk gehitu ditu alfabeto zirilikora transliteratuta. Itzultzaileak hitz horiek mantentzea erabaki du eta oin-ohar bat txertatu du, alemanez “oso ondo” esan nahi duela azaldu nahian. Nire ustez, STko efektua mantentzeko aukera hoberena da.

28. taula

Аз есмь! - ответил он, наклоня свою большую голову с длинными, как у псаломщика, волосами.	Az esm! —erantzun zuen, salmolarien antzeko ile luzeekiko buru handia makurtuz.
---	--

28. taulan azaltzen den STan salmo-kantariak (Euskaltzaindian horrela dago onartuta) hitz batzuk esaten ditu antzinako eslavieraz. Itzultzaileak euskaraz baliokideren bat bilatu beharrean, esaldi hori transliteratzea eta transferitzea erabaki du

eta oin-ohar batean antzinako eslavieraz “Ni naiz” esan nahi duela azaltzen du. Nire ustez, bere itzulpen hautuetan koherentzia mantentzeko aukeraketa egokia izan da.

V. Transferentzia:

Orokorrean kultur erreferentziak transferitzea hobesten da. Itzultzaileak horretarako erabili du baliabide hau, hain zuzen ere.

29. taula

—А по батьюшке ? - спросила мать. —Васильевна. А вас?	— Eta aita-izenez ? —galdetu zuen amak. — Vasilievna. Eta zure deiturak?
---	--

29. taulako STan patronimikoari buruz ari zaio galdezka, hau da, errusiar kulturaren seme-alabek aitaren izenarekin osatutako deiturari buruz. Itzultzaileak bere horretan itzultzea erabaki du, inongo azalpenik gabe. Hurrengo esaldian *deitura* hitza gehitzen saiatu da konpontzen, baina ez da guztiz garbi geratzen horien arteko lotura. Horregatik, euskal irakurleak informazio osagarri bat beharko luke kontzeptua ondo ulertzeko. Logikoena oin-ohar baten bidez azalpen bat ematea izango litzakete. Kasu honetan, aldiz, itzultzaileak jada aurreko orrialdean eta orrialde berean baliabide hau erabili du. Jakinaenez, ez da gomendagarria oin-oharrak gehiegitan erabiltzea, irakurlearentzat astun bilaka baitaitezke. Horregatik, lehenengo aldian “deitura” itzulita egokiagoa izango zela deritzot.

30. taula

Я говорил, - продолжал Павел, - не о том добром и милостивом боге, в которого вы веруете, а о том, которым попы грозят нам, как палкой	— Ni ez nintzen ari —jarraitu zuen Pavelek— zuk sinesten duzun jainko on eta bihotz-bigun horretaz, baizik eta makila bat bailitzan popeek zuri mehatxu egiteko erabiltzen duten beste horretaz
---	---

30. taulako adibidean, 29. taulakoan bezala, kultur erreferentzia transferitzea erabaki du eta itzultzaileak ez du inongo azalpenik gehitu. Kontuan hartuta eleberri honetan erlijioaren gaiak garrantzia handia duela eta *pope* hitza eleberrian hainbat alditan azaltzen dela, azalpen bat beharrezkoa dela deritzot. Hitza azaltzen den lehenengo aldian oin-ohar batean azalpen bat txertatzearekin konponduko zen.

31. taula

Теперь, говорит, солдат посылают народ бить. А я думаю идти. Войско и при Степане Разине народ било и при Пугачеве .	Orain soldaduak herria jipoitzera bidaltzen dituztela dio. Baina nik joateko asmoa dut. Stepan Razinen garaian armadak herria jotzen zuen, eta Pugatxeven garaian ere bai.
--	--

Stepan Razin eta Pugatxev bi buruzagi militar kosako izan ziren (31. taula), lehena XVII. mendekoa, eta bigarrena XVIII. mendekoa. Itzultzailea transferentziaz baliatu da, hau da, buruzagien izenak transliteratu ditu eta bere horretan utzi ditu inolako azalpenik eman gabe. Euskal irakurleak, ordea, errusiar historiako pertsonaia horiek seguruenik ez ditu ezagutzen eta ez du garai horiek kokatzerik izango. Oin-ohar batean azalpen labur bat ematearekin aski izango litzateke, hala ere, eleberrian garrantzia berezirik ez duenez, 29. taula eta 30.tauleko adibideetan ez bezala, ez dut ezinbestekoa ikusten informazio hori txertatzea.

VI. Hitzez hitzezkoa:

STko egitura eta hitzak XTan mantentzean datza. Batzuetan, ordea, SHko eta XHko egiturak desberdinak izan daitezke eta XHko arauak hauts litezke.

HITZ ARRUNTAK

32. taula

- Пришла пора драться , так некогда руки лечить! - глухо возразил Весовщиков.	— Jotzeko ordua iritsi da, eta ez dago eskuak sendatzeko astirik! —ihardetsi zuen Vesovstxikovek ahots garratzez.
--	--

32. taulako adibidean euskarazko bertsioa oso anbiguo geratzen da, izan ere, euskaraz “jo” hitzak adiera asko izan ditzake. Euskaltzaindiak hamabost adiera biltzen ditu, hain zuzen ere. Horien artean, musika-tresna bati soinua atera edota tokiren baterantz joan. Anbiguotasun hori ekiditeko sinonimo bat erabili beharko lukeela deritzot. Esaterako, *borrokatu*.

33. taula

Павел вспоминал, что при жизни отца мать была незаметна в доме	Pavelek gogoratzen zuen aita bizi zenean ama oharkabea zela etxean
---	---

33. taulako *nezametna* hitzak “oharkabea” esan nahi du. Errusieraz adjektiboa da, baina euskaraz, zentzu horretan, ez da aposizio bezala erabiltzen. Elhuyarrek beste adiera batekin jasotzen du: pertsona oharkabea norbait arduragabea da. Kasu honetan, ordea, ez du zentzu hori. Amaz inor ohartzen ez dela adierazi nahi du, hain zuzen ere. Beraz, errusierako egitura hitzez hitz itzuli duela ikus dezakegu. Euskal irakurleak ulertuko badu ere, egitura arraroa irudituko zaio. Horregatik, esaldia naturalizatu beharko litzatekeela deritzot.

FRASEOLOGIA

34. taula

Водка ослабила его тело, но не погасила сознания, и в голове стучал вопрос.	Vodkak gorputza ahuldu bai baina konortea ez zion itzali , eta galdera bat joka ari zitzaion buruan
--	---

Esaldi honetan hitzez hitzezkoaren bi adibide aurki ditzakegu. Alde batetik, “konortea ez zion itzali” itzuli du, hau da, errusierazko testuan azaltzen diren hitz berberekin. Euskaraz, aldiz, “konortea galdu” kolokazioa erabiliko genuke.

Bestalde, 34. taulako bigarren adibidean itzultzaileak errusieraz ohikoa den egitura mantentzea erabaki du. Zentzu figuratibo batean galdera bat sortu zitzaiola esan nahi du. Euskaraz, aldiz, “galdera bat sortu” bezalako egitura bat ohikoagoa izango litzateke. Bi adibideetan esanahia ulertzen bada ere, itzulpen kutsua ematen diote.

35. taula

Директор медленно обвел глазами толпу, пожал плечами	Zuzendariak begiak jendetzatik astiro eraman eta sorbaldak goratu zituen
---	--

35. taulan errusiar fraseologiaren parte den adibide bat ikus dezakegu, eta zehazki, ingurura begiratu esan nahi du. Itzultzaileak, ordea, jatorrizko egitura mantentzea erabaki du. Alde batetik, ezezaguna den egitura izaki, arraroa egiten da irakurtzea eta itzulpen kutsua ematen dio. Hala ere, itzulpenak kutsu metaforikoa izatea lortzen du.

36. taula

Зачем? И охота есть! - ответил парень, потирая подбородок. - Народ начал пошевеливать мозгой . «Геология» - это что?	— Zer ba? Gogorik ere badago —erantzun zuen mutilak, kokotsa igurtziz—. Jendea burmuina apur bat astintzen hasia da . «Geologia», zer da hori?
---	--

36. taula adibidea errusiar fraseologiaren parte da, eta hizkuntza horretan norbait zerbaiti buruz pentsatzen hastea ulertu nahian esan nahi du. 35. taulan gertatzen den bezala, itzultzaileak jatorrizko egitura mantentzea erabaki du. Euskal irakurleari arraroa irudituko zaio, bai eta itzulpen kutsua ematen dio ere. Hala ere, estilo metaforikoa eratzeko balioko luke.

37. taula

Мы должны показать тем, кто сидит на наших шеях и закрывает нам глаза, что мы все видим	Gure lepo gainean eserita dauden eta begiak ixten dizkiguten horiei dena ikusten dugula erakutsi behar diegu
--	---

37. taulako adibidea errusiar hizkuntzako fraseologiaren parte da, eta jatorriz, norbait interes propioetarako erabiltzea esan nahi du. 35. eta 36. Taulako adibideetan

bezala, itzultzaileak egitura hori mantentzea erabaki du. Kasu honetan, kutsu metaforikoa ematen badio ere, jatorriz hizkuntzan zuen esanahiaren interpretazioa galtzen da guztiz.

38. taula

Павел, овладевая собой , стал говорить проще, спокойнее...	Pavel, bere burua menperaturik , era ulergarriagoan eta astiroago hitz egiten hasi zen.
---	--

38. taulako adibidean ere itzultzaileak hitzak banaka itzuli ditu. Errusierazko testuan fraseologiaz baliatu da. *Ovladevaia soboi* unitate fraseologikoak funtsean zure burua kontrolatu esan nahi du. Elhuyarrek “norberaren burua menperatu” beste adiera batekin jasotzen du: *debes vencerte a ti mismo*; zeure burua menderatu behar duzu. Beraz, ikus dezakegu ez duela esanahi berbera eta horrenbestez, fraseologia-unitatea naturalizatzea beharrezkoa da.

ESAERA ZAHARRAK

39. taula

- Значит, они того же хотят, что и я, только идут проселком, а я большой дорогой, - перед начальством же мы одинаково виноваты, верно? А третье, мне, брат, до них дела нет, - пеший конному не товарищ . Против мужика я так, может, и не захочу сделать.	Beraz, bai haiek, bai ni, gauza berberaren bila ari gaituk, baina haiek bidezidorretik zoazak, eta ni bide nagusitik: agintarientzat denok gaituk errudun, ezta? Eta hirugarrenik, anaia, nik ez diat inolako loturarik haiekin, zalduna ez duk oinezkoaren lagun . Mujik batekin, agian, ez nitek horrela jokatu.
---	---

39. taulako adibidean errusierako esaera zahar bat aurki dezakegu. Funtsean, antzik ez duten bi pertsoneri buruz hitz egiteko erabiltzen da. Itzultzaileak esaera zaharra mantentzea erabaki du. Euskal irakurleak, ordea, kostata ulertuko du hitz horien atzean dagoen ideia. Hala ere, itzultzaileak euskaraz esanahi horrekin baliokiderik aurkitu ez duela kontuan hartuta, aukera bakarra adiera hori gurera ekartzea dela pentsa daiteke.

40. taula

- Любезничать мне время нет. Жизнь смотрит строго; на псарне - но в овчарне, всякая стая по-своему лает...	— Ez diat adeitsua izateko astirik. Bizitza latza duk; txakurtegia ez duk artegia bezalakoa: txakur talde bakoitzak bere kasa egiten dik zaunka...
---	---

40. taulan errusierazko esaera zahar arkaiko batekin aurkitzen gara. Jatorrizkoan akats bat dagoela pentsa genezake, funtsean esaera zaharraren horrela aurki baitezakegu: *na pсарne - NE v ovtxarne, vsiakaia staja po-svoiemu laiet*. Kolektibo bakoitza, tradizio eta baldintza desberdinak izanda, modu ezberdinean bizi dela adierazi nahi du. Itzultzaileak euskaraz esanahi horren baliokiderik aurkitu ez duenez, esaera

zaharra mantentzea erabaki du. Nire ustez, aukera ona izan da, esaera zaharra bera, ezezaguna izanda ere, nahiko ulergarria baita, eta zentzu batean kutsu metaforikoa ematen dio itzulpenari.

6. ONDORIOAK

Errusieratik euskarara zuzenean itzultzeko lehen saiakera honetan itzultzaileak errusiar hizkuntzaren ezaugarriei aurre egiteko aukera edo erronka izan zuen. Testu bat hizkuntza batetik bestera itzultzeko ezinbestekoa da SH eta XH ongi menderatzea, hau da, hizkuntza bakoitzeko arau propioak ezagutu behar dira. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu, errusiera eta euskara bi hizkuntza guztiz ezberdinak izateaz gain, bi kultura desberdinetan hitz egiten direla, eta pentsatzekoa da hizkuntza bakoitzak munduaren ikuspegi propioa deskribatzeko esapide eta hitzak izango dituela.

Aurkeztutako lan honetan itzultzaileak erronka horiei guztiei aurre egiteko hautatutako baliabideak aztertu ditugu, itzultzailearen balizko itzulpen-estiloa definitu nahian. Saiakera horretan zenbait joera identifikatu ditugula esan dezakegu:

Itzultzaileak erabilitako erregistroari dagokionez, eleberriaren zenbait zatitan jatorrizkoaren erregistroa igoarazi duela iruditzen zaigu. Itzultzaileari egindako elkarrizketa batean, *Ama* “oso estilo erraz, lau eta koxka handirik gabean” idatzita dagoela adierazi zuen, baina itzulpenean iparraldeko euskalkietako hitzak, kultismoak, eta adizki trinkoak bezalako elementuak txertatu izanak euskal itzulpenaren zenbait pasartetan erregistroa igotzea eragin duela deritzogu. Arrazoi posibleen artean bi aipa genitzake: batetik, itzultzailearen lehendabiziko itzulpen argitaratua izanda, gerta daiteke itzultzaileak estiloa guztiz garatu gabe izatea eta modu inkontzientean erregistroa igo izana. Bigarrenik, XX. mende hasierako obra bat izaki, litekeena da hautua modu kontzientean eginga izatea. Oro har, kontuan hartu behar da eleberria gehienbat herri xehearentzat idatzi zela, helburu didaktiko eta propagandistagoarekin. Itzultzaileak maila jasoko elementu horiek txertatzean lortu duen efektua, ordea, STko erregistroarekin bat ez datorrela ondoriozta genezake. Batetik, euskal irakurle arrunt batentzako testuetan, elementu hauek ez lirateke ohikoenak. Bestetik, jabetzen gara ez dela erraza horrelako arazoak gobernatzea, euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, alegia, erregistroak guztiz finkatu gabe dauzkan hizkuntza batean; 1995ean gaur egun baino are gehiago. Itzultzaileak berak 1998an egindako elkarrizketa batean aipatzen zuen: “oraindik ez dago finkaturik euskara batu estandar orokorra bera, eta are gutxiago literatur hizkuntza estandarra” (Biguri, 1998).

Bestalde, eleberri hau itzultzerako garaian itzultzailearen erronka handienetako bat kultur erreferentziak izan direla nabarmenduko genuke. Itzultzaileak berak adierazi zuen bezala, errusierako hitz askok lotura estua dute garaiko ohiturekin, ogibideekin, gizarte-antolamenduarekin eta horrelakoekin (Biguri, 1998). Arazo horri aurre egiteko, naturalizazioa, sinplifikazioa, gehikuntza eta beste baliabide batzuk erabili baditu ere, orokorrean, transferentzia eta oin-oharrez baliatu da gehienbat. Horrez gain, STa fraseologia eta esaera zaharrez beteta dago. Naturalizazio saiakera batzuk egin baditu ere, orokorrean horiek hitzez hitz mantentzea izan da itzultzailearen hautua. Eskuarki, bildutako datuek pentsarazten digute STtik oso gertu itzuli duela. Lehenago aipatu bezala, kontuan hartu behar da itzultzailearen lehen itzulpena dela, bai eta errusieratik euskarara itzultitako lehen aldia dela ere. Hala ere, jakina da praktikak eta esperientziak itzulpen-baliabideen hautua fintzen laguntzen dutela, eta aipatu behar dugu itzultzaile honen hurrengo lanetan kalitateak goranzko bidea jarraitu duten hainbat zantzu bildu ditugula. Horren erakusle dira, hain zuzen ere, itzultzaileak *Gure garaiko heroia* itzulpenarengatik jasotako Euskadi Saria, bai eta harrezkero errusieratik zuzenean euskaratu dituen zazpi nobelak ere.

Amaitzeko, lan honetan itzultzailearen zenbait joera identifikatu baditugu ere, lortutako emaitzak mugatuak direla aitortu behar dugu. Izan ere, *Ama* eleberriaren euskal itzulpenaren lehen zatia aztertu dugu, eta ez da erraza datu horietan soilik oinarrituta egile baten estiloa bezain kontzeptu labainkorra zehaztea. Edonola ere, honako lana bezalako beste estilo bilaketa-lanen bitartez, aurrerantzean itzultzaileen itzulpen-estiloan sakontzen jarraitzea posible eta onuragarri suertatuko dela deritzogu.

7. BIBLIOGRAFIA

- Biguri, Koldo. (1998). "Jose Morales, itzulpen alorreko 1997ko Euskadi Sariduna", *Senez*, 20. Eskuragarria: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19980101/biguri>
- EIZIE. (2010). *Katalogo orokorra (1990-2010)*. Eskuragarria: http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala/katalogoa/katalogoa.pdf
- EIZIE. (2017). *NorDaNor*. Eskuragarria: <http://nordanor.eus/>
- Euskaltzaindia. Real Academia de la Lengua Vasca (d.g.). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Eskuragarria: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage%20&Itemid=474
- Euskaltzaindia. Real Academia de la Lengua Vasca (2017). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Eskuragarria: http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu
- Gorki, Maksim. (1971). *Mat*. Leningrad: Khudozhestvennaia literatura.
- Gorki, Maksim. (1995). *Ama*. (Itz: Jose Morales Belda). Euba: Ibaizabal.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. (2003). Eskuragarria: <http://www1.euskadi.net/harluxet>
- Holmes, James S. (1988) "The Name and Nature of Translation Studies". *Translated! Papers on Literary Translation and Translation Studies*, 2. ed., 67-80 or.
- Jaka, Aiora. (2005). "Translating Basque Literature", *Transcript*, 20. Eskuragarria: <http://www.transcript-review.org/en/issue/transcript-20-basque/translating-basque-literature>
- Kaltzakorta, Xabier. (2001). "Euskal fraseologia: Historia, oinarriak". *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, Liburukia 46, (1), 73-87 or.
Eskuragarria: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/11645.pdf>
- López Gaseni, Jose Manuel. (d.g.). "Literatura itzulua". *Basqueliterature.com*.
Eskuragarria: www.basqueliterature.com/basque/historia/itzulia
- Newmark, Peter. (1988). *A textbook of translation*. New York: Prentice-Hall.